



ALKIZAKO UDALA

## **UDALBATZARRAK 2023ko MAIATZAREN 16AN EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA**

2023ko maiatzaren 16an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez  
ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Unai Sorarrain Urruzola

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Shrabani Aranzabe Pita eta Concepcion Soria Legua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Alkizako Sormenaren Kabia: deialdiaren hasiera eta oinarrien onespena.**
- 2. Fakturak eta ordainketak.**
- 3. Mendiola azpi etxearen atarian dagoen ur matxurari buruzko erabakia.**

.../...

### **LEHEN PUNTUA**

### **ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: DEIALDIAREN HASIERA ETA OINARRIEN ONESPENA**

Ikusirik Alkizako Sormenaren Kabia Bekaren 2023 urterako deialdirako oinarriak prestatu direla.

Kontutan izanik, udal batzarkideek, aipaturiko deialdiaren oinarriak aztertu dituztela.



ALKIZAKO UDALA

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Sormenaren Kabia Bekaren deia egitea 2023. urterako.

BIGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2023ko edizioa gidatuko duten oinarri arautzaileak onartzea.

HIRUGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2023ko ekitaldiko epaimahaia onartzea.

LAUGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren 2023ko edizioan hautagaiak aurkezteko epea iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, ekainaren 30era bitarte indarrean egongo da, bi datak barne.

BOSGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren oinarri arautzaileak Alkizako Udalaren eta Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren atarietan ikusgai jartzea. Hala, edonoren eskura daude [www.alkiza.eus](http://www.alkiza.eus) eta fagus-alkiza.eus web orrialdeetan.

SEIGARRENA: 2.000,00 eurotako gastua onestea udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kargura.

### **BIGARREN PUNTUA**

### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

KIROLZER	33,44
EBA ERKIZIA	1.463,27
GOIENER	19,80
URAK SOLUCIONES TECNICAS AL AGUA	502,15
GUREAK MARKETING	16,77
PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	508.20
MAQUELSA	45,71
COPY TEC	6,90
SOLRED	199,02
ARGITU ASESORES	186,45



ALKIZAKO UDALA

MAQUELSA	32,11
OSCAR GALINDO BARROSO	133,10
CALPARSORO INDUSTRIAL	92,08
DEKOARBERAS	296,74
IZADI LABORATEGIA	234,74
WOLTERS KLUWER	1.136,19

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **4.906,67** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **MENDIOLA AZPI ETXEAREN ATARIAN DAGOEN UR MATXURARI BURUZKO ERABAKIA**

Ikusita, 2023ko otsailean udal langilea ohartu zela Mendiola Azpi etxera herriko ur-hornikuntzarako saretik doan hodian ur-galera nabarmena zegoela. Otsailaren 20an herriko alkatea, peoiaren laguntzarekin, Mendiola Azpira doan hoditeriaren hartunea den arketara joan zen ikuskatzera galeraren tamaina. Galera nabarmena zela ikusi zen eta bidez grabatu zen neurgailuaren orratzen ibilera azkarra.

Ikusirik, egun horretan bertan alkateak gutuna bidali zuela Mendiola Azpiko bi etxebizitzetako bizilagunei, Luis Costell Berjes eta Adoración Pascual jaun/andreari. Gutunean adierazten zen gertatzen ari zena eta matxurak herriko ur-hornikuntzarako sistemari egiten ari zitzaion kaltea; esaten zitzaion beraiei zegokiela matxura konpontzea eta hilabeteko epea ematen zitzaion matxura konpontzeko.

Ikusirik gaurko egunean oraindik matxura ez dela konpondu.

Ikusirik Mendiola Azpiko bizilagunek agertu duten ardurarik eza eta horrek herriko ur-hornikuntzarako sistemari eragiten dizkion kalteak aintzat harturik, udalari honako proposamena luzatzen zaio:

1- Mendiola Azpi etxera herriko ur-hornikuntzarako sistematik doan hodiari gertatutako matxura udalak berak konpontzea.

2-Matxuraren konponketaren kostua Luis Costell Berjes-i eta Adoración Pascual -i ordainaraztea modu solidarioan.



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENENGOA.-** Mendiola Azpi etxera herriko ur-hornikuntzarako sistematik doan hodiari gertatutako matxura udalak berak konpontzea, betearazpen subsidiario modura.

**BIGARRENA.-** Matxuraren konponketaren kostua Luis Costell Berjes-i eta Adoración Pascual Pascual-i ordainaraztea modu solidarioan.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauen berri interesatuei ematea.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:20 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

